



TXIRRITXOLA

3. ZENBAKIA

1992.EKO EKAINA

BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

Gaueko laino gorri goizeko iturri
Ez gehiegi hitz egin nahi ez baduzu hutsegin

Bakio : Amets Bazterrak *Ureta*


Eumeko erreka eta Iroalako erreka besarkatzen diran lekuan oraindik Uretaerrotatxeak zutunik dirau.

Bizkaian burdingintzak gorantz egiten eban XVI eta XVII. mendeetan Bakion egozan burdinoletako bat eraiki zan agian txoko horretan. Bilbotik burdinez beteta zetozen gabarrak bakiora porturatzen ziran,

gero bertoko burdinoletara gurdiz banatzen zelarik.

Agian Ureta errota dana, orduan burdinoletan energia lortzeko, gabiak mobitzeko eta mineral barrak egiteko erabiltzen zan elementu bat zan. Gaur desagertutako Olazarre eraikuntza errota ondoko burdinola zan. Orduan egindako burdin barrak eta errautsak orain gitxi agertu dira.

Burdinola desagertzean, noizbait garia eta batipat artoa eiotzen zan errota lakatua



bihurtzen jakun.

Leku horretan hiru gizaldi bizi izan dira. Eioketara etozen jendeen berraurkitze gune zan.

Baserriko bizia eta berriketa alai eta benetazkoak elkar-bizitzen ziran hemen.

Bere izakera eta identitatea jakin dauen baserri-errota bat. Lagunkidetasuna eta emankortasuna esku zabaltasunez hazi izan dira han.

Gure ohiturak amesten ditugu eta anaitasunean bizitzen saiatzen gara

Elkarrizketa*M^a Luisa Larrazabal Unibaso (90 urte)*

Galdera: Apellidu horrek ez dira hemengoak, ezta?

Erantzuna: Ez, ni bederatzi edo hamar urte gaz etorri nintzen hona Plentziatik eta apellidu horrek Jatabe eta Gatika ingurukoak dira.

G.: Orduen ala geur euskera gehiago?

E.: Nik, hona etorri nintzenien, ez neuen euskerarik jakin, baina eskolara hasi nintzenien «maketa» deitxuten eustien eta holantxe ikasi neuen. Baina gaur egun uste dot euskerie aurrerantza doala. Uneda baten, Francon denboran, gitxitxu egin zen baina gaur ostabere indarra hartu du.

G.: Orduko herria eta gaurkoa konparatuz, zer ikusten dozu?

E.: Orduen jente gitxiago egon giñen eta hobeto konponduten giñen, uniño gehiau egoten zen.

Gaur egun dirue duelez gauze gehiau egiten dire bana nor gehiauan gabiz.

G.: Zure gizona alkate izan zanien bermioko anexioa lortu zen. Kontaizu anekdotaren bat.

E.: Garavilla eta Maximo (nere gizona) ibilli ziren tira-biran, Garavillak asuntoa lengo moduen, baina nire gizonak ezetz esaten eutson eta Garavillak erantzun eutson «Gizona zara, baina aurrerantzean ere gizona izango zara».

G.: Badakigu honeri buruz gauza asko egongo direla kontatzeko eta hurrengo batetan artikulo berezi bat egin beharko dogu. Dana dala, M^a Luisa, txakoliñaren munduan ere Basigokoak badaukazue zer esan.

E.: Basigon hiru zepa ia 200 urtekoak dauz. Baina txakoliñek lan asko eta diru gitxi izten deu. Aintziñe Bakioko baserri guztietan egiten



zan, baina apurke apurke izten joan ziren.

G.: Dana dala terreno desaprobetxatu asko dauz Bakion eta ez litzateke posible guztiak aprobetatzuz eta lana erretuz gehiago promozionatzea?

E.: Ez dot uste ze hau ezta ardaulez eta karu urtetan deu.

G.: Amaitzeko, zer diñozu gaurko gaztien dibersiñoari buruz?

E.: Lehen dibersiñoa sanagoa zan eta ez zan edaten hainbeste. Orain gaztiak diru asko biher deurie. Bestela, ondo, ze guk, edadekoak bere badekogu geure tokiaa dibertiduteko.

G.: Eskerrik asko M^a Luisa, hurrengo baterarte.

E.: Gero arte, bai.

Hona etorri nintzenien, ez neuen euskerarik jakin, baina eskolara hasi nintzenien «maketa» deitxuten eustien eta holantxe ikasi neuen

VI. Udako Aste Musikala

Bakio-ko Abesbatza-kook, bagabiltza, ihaztik, aurtengo «VI Udako Aste Musikala» prestatzen.

Uztailaren 13tik 19ra izango da, eta Bakioko Udaletxe eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz atarako dogu aurrera.

Beste urte batzutakoak maila ona izan badabe, urte honetako be, ez da atzean geldituko; begira bestela, egitaraua:

Astelehena, 13: Joakin Atxukarro

Martitzena, 14: Sofia-ko korda Orkestra

Eguastena, 15: Jesus Aranbarri kamerata

Eguena, 16: Kitarra eta Arpa bikotea



ETBko programan parte hartu gemican


Barikua, 17: Santos. Ariño baritonmoa eta A. Zabala pianojolea

Zapata, 18: Easo korala

Domeka, 18: Bulgariako Operako Orkestra

Guzti hau, oraintsu barriztutako parrokian ikusi eta entzun ahal izango dozue. Ordura arte, eta zuen gustokoa izango dalakian, agur.

on



Gero eta helburu aberatsago Itxas- Aldek

Bakioko dantza taldeak, **Itxas-Aldek**, aurrera jotzen dau, 1.992.eko helburuak betetzeko zereginetan.

Aurtengo asmoak, igazkoak baino aberatsagoak direlaketan gagoz: «Raduga» talde errusoarra dakargu Bakiora, Uztailaren azkenengo astean, eta «Lous Reoles» talde frantziarra, Abustuaaren amaierantza, (Bakioko jaietarako). talde biak izango doguz gugaz epe bi desberdinetan, eta gu Frantziara joango gara Uztailaren 11tik 15era.

Igaz esperientzi zoragarria izan genduan Portugaleteko taldearekin. Hartuemonak, liluragarriak izan ziran benetan, eta aurtan, ez dogu gitxiago itxaroten. Bakioko neska-mutil gazteak, Euskal Herriko folklore aberastasunen ordezkariak izan ginan atzerrian, eta kultur desberdinak alkatu ginan bat egiteko, folklore ardatzaren inguruan. Lan gogorra batzutan, baina ondorio onuragarriak, dudarik gabe, Bakiotarrentzat.

1.993.ean, Errusiara joan beharra izango dogu, eta ez dakigu oraindik, zer asmatu beharko dogun baliapen ekonomikoak lortzeko, baina, ordurako, zeozer izango da, eta goiazan, momentuz aurtengoa konpontzen.



Txokotik- errebotera Alaitasuna Pilota Taldea

Txokotik ikus daitekeenez, badirudi Udaletxeak frontisari aurpegia garbitu diola. «Alaitasunak» ordea, Iker, Unai eta Ibonen (eskupilotara dabiltzan eskolako umeak) sotamanoak eutsiko ez dituenaren alde egin du apostua.

Adar jotzea alde batetara utziz, frontisan egindako lana eta margoketa, itxura baten, ondo geratu dela esan dezakegu. Aipatu beharrekoa da ere, gauregun pilotalekuko garbiketa lana.

1991-92 aldiko hiru laurdena bete denean, Alaitasuna pilota taldeak, baikortzat eman arren ekintzaz jositako urte hau, ez gaude hain arto eskupilota eskolagaz, ea datorren urtean enfoke berri bat ematen diogun ume taldea

bultzatuz.

Bi ekintza mota geratzen zaizkigu, aurtengo laurden hori betetzeko:

1) Ume esku lehiaketa, ekainaren 23an amaituko delarik.

2) Udako narruzko txapelketa abuztuaren zehar.

Errebotera helduz, lerro hauek aprobetxatu nahi genituzke eta animatu era berean, ekainak 23 horretan, ume partidu tarteetan, herri kirolzale guztiek parte har dezagun, Alaitasuna pilota taldearen laguntzaile batzuk proposaturiko «herriko lehenengo soka-tira tiraketan». Honen ezaugarri edo baldintza zehatzagoak aparteko karteletan izango ditugu.


Beste barik, txoko-errebote tartean ikusi arte.



«Gure ametsa eskola barri bat eukitzea zen eta...»



... Gaur egia bihurtu da hauentzat»



*Hauek Eskolaurrean
hasi eta 8. mailararte
berton egin dituzte
ikasketak
ZORIONAK!!!*

Urkitza ikastetxea

Bakio K.T.: Futbol espektakuloa hiru mailatan urte guztian zehar

1991-92 denboraldireko markatutako helburuak zabal gainditu ditugu, kirol arlotatik begiratu. Diru aldetik justu samar ibili gara, baina gure azken balantzea positiboa izango da.

Lehenengo ekipoari dagokionez, hau da, Regionalekaori, hirugarren postua lortu du, nahiz eta, asko sofritu eragin zaletuei etxeko partiduetan. Beraz, maila igoteko promozioa jokatu du ekipo honek.

Infantil mailako ekipoak denboraldi oso ona egin du. Ligan taula erdian geratu da positibo batez, eta kopan bi partidu irabazi ditu. Kontuan hartu behar da ekipo honek lehenengoz jokatu duela maila honetan, eta honegatik eta ekipo oso onak daudelako maila honetan, meritu handia



du egin duten denboraldiak.

Alevin mailako txikiak, txapela kentzeko moduko kanpaina osatu dute. Ligan hirugarren postua lortu eta gero, kopan leheengo postua lortu zuten beraien taldean, eta azkenean, final erdietan kanporatu zituzten. Benetan izugarria txiki hauek egindako

futbola.

bazkide, udal, taberna, denda, eta gure rifak, loteriak etabar erosten dituzten jendeagaitik, datorren denboraldian ere, abentura hau jarraitzeko asmoz:

**BAZKIDETU ZAITEZ
BAKIO K.T.-en !!**

Euskara eskolak azken txanpa

Bakion euskara ikasten dabilzan talde txiki baina sendo biek, ekainaren azken aldera amaituko dabez eskolak.

Batzuk udan euskaraz barra barra egiteko eran, beste batzuk apur bat itxaron beharko oraindino.

Datorren urterako talde lodiagoak osatuko ote?

**Anima zaitetz! eta
eman zure izena
AEKn!**

AEK-JIRA Bakiora ekarri

Martxoaren 19, 20, 21 eta 22an **AEK**ren erakusketa mardula heldu zen Bakiora. AEKren historia, ikaskuntza, metodologia, Korrika, Aekanpada eta besteren berri emon euskuna.

Gainera 19an Itxas-Aldek dantza saio ederra, 20an Triki-Triza kalez-kale,

tabernatik tabernara, - Txelisi itaundu ostean, eta 21an Bilboko Gaiteruak euripean zarataren sari.

Amaitzeko akaburengo egune Domeka izan zan, gaztaie, txakoliñe, talo, txorizo, sagardo, etabarrez puztu-puztu egin ginelarik

Euskararen erabilera dela eta

Euskararen erabilerearen arazoa sarri tratatzen da. Aurrean ditugun datu hauk Bermeokoak dira, nahiko beldurgarriak eta kezkarriak, (ez daigun pentsa.

Bakion egoera hobea daukagunik) Badago bai, zer pentsatu. Baina, batez be, badago zer egin. Ez gara egon behar goitik datorkigun soluzioaren zain. Denok ahalegindu behar gara pro-


blema honi irtenbidea aurkitzen. Eta eskuan daukagu erabiltzen ez dogun bat.

Dakigunok edonon eta edozeineguz euskeraz egin.

Gure hizkuntza beti euskera izan behar da, etxean

eta kalean, dendan eta tabernan, udaletxean ala autobusean, lagunekaz, ezagunekaz, eta ezezagunekaz, baina batez be emeekaz eta seme-alabekaz.

Hala bedi



Euskaldunak euskaldunari...

... Euskaraz? Bai dudarik gabe, itaundu txakurreri bestela. Lagun! zatoz hona!, Perla hortxe geldi! - joder con el perro este, no para quieto... adibidez.

...Euskeraz? Baietz ba motel, umeeri. Iker utz egizu pilota hori geldi! - Este chaval me va a matar, - Igone, Jeitsi zaitetz hortik eta zatoz afaltzera! - Es que se les enfría la cena todos los días... baliteke.

...Euskeraz? Zelan ostantzean! Etxeak danak direz euskaldunak, Hara hor adibide batzuk: «OSTADAR», «ARRATS-EDER», «KAI-ALDE», «MIKEL-ETXEA»... nos ha costado media vida y un riñon del suegro pero valia la pena... entzun doguz noiznahi eta edonon.

...Erdaraz, Gazteleraz? Kita deai, keba.! Lagunegaz bakarrik, bueno edo emazte-edo senarregaz, ta... beharbada...

Euskaldun jaio nintzen ta erdaldun hazi, ta erdaldun hazi;; mende honetan jaio ta ez nuen merezi. Erroma eta Grezia Espaina ta Prantzi Euskalerririk ez zen kondaira ageri. Salve-ko herbestean geratu nintzen ni

Gandiaga

Lanbide hiztegia

Abokatua = abogado
 Nekazaria = agricultor
 Igeltaria = albañil
 Bizargiña = barbero
 Zerbitzaria = camarero/a
 Hargina = cantero
 Zurgina = carpintero
 Postaria = cartero/a
 Erizaina = enfermero/a
 Iturgina = fontanero

Lorazaina = jardineru
 Mezularia = mensajero
 Joskilea = modista
 Gozogilea = pastelero
 Atezaina = portero/a
 Jostina = sastre
 Idazkaria = secretario/a
 Dendaria = tendero
 Garraiolaria = transportista
 Albaitaria = veterinario

Txistea

Eroetxeko zuzendariak galdetzen dio ero bati:

-Nik sudurra moztuko banizu, zer gertatuko litzateke?

- Orduan ez nukeela ikusiko.

- Eh? Zuk sudurretik ikusten duzu ala?

- Ez, baina sudurra moztuz gero, non sostengatu behar ditut betaurrekoak

Zazpi edariak

a	i	l	o	k	a	x	t
n	b	z	i	t	o	x	k
a	x	k	u	u	j	o	p
r	z	i	a	x	u	k	n
a	e	t	e	f	j	o	l
x	s	o	t	i	e	l	i
t	n	a	o	d	r	a	o
a	e	t	r	r	p	t	l
d	a	i	e	x	b	e	s

- 1) Txokolatea
- 2) Tea
- 3) Esnea
- 4) Kafea
- 5) Txakolina
- 6) Ardoa
- 7) Patxarana

